

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Altzaga



Aurkibidea

Udalerria: Altzaga

Sarrera



Altzaga Gipuzkoako erdialdean eta Goierriin kokaturik dagoen landa-udalerri txikia eta euskalduna da, eskualdean biztanle gutxien daukana Gaintza eta Aramarekin batera. Iparraldean Legorreta, ekialdean Baliarrain eta Gaintza, hegoaldean Zaldibia eta mendebaldean Itsasondo eta Arama mugakide ditu. Hauek dira herriko auzo nagusiak: Urruti Zelai, Altzaga Bidea (udaletxea), Altzagarate, Sarasola eta Abali. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 164
- **Euskaldunak:** %77,27

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **24**
- Transkribatutakoak: **4**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **24**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak
- Goierri Telebista

Hizlariak



Maria Esnaola Amenabarro (1906-1985)

Antonia Garmendia Jauregi (1928)



Itsasondoko Goierri auzoko Sarobe-Etxeberri baserrian jaio zen 1928an. Aita bertakoa eta ama Bedaioko Bedaio-Barrena baserrikoa zituen eta 8 anai-arreba dira sendian. Eskolan Itsasondon ibili zen, eta geroago Ordizian maistra batzuen etxean. Baserriko bizimodua gertutik ezagutu du, baina baita tabernakoa ere; 13 urterekin Altzagarateko tabernara joan zen neskame lanetara. Zaldibiako Benta Berri tabernan ere aritu zen langintza horretan, sendikoak baitzituen. Sukaldaritza ikasten aritu zen Ordiziako familia batek Donostian zuen Lasarte tabernan. 29 urterekin ezkondu zen Altzagako Urruti-Barrena baserrira eta 3 seme-alaba izan zituen.

Julio Goitia Iztueta (1925-2018)



Matxinean jaioa, aitaren jaiotetxean. Baserritarak zituen gurasoak, Domingo eta Maria. Ama Lazkaoko Albitxu Goikoa baserrikoa. Hamar senidetan zortzigarrena, gogor ekin zion lanari gazte-gaztetatik; eta, sei urte bete zituenerako, akolito izendatu zuten herriko eliza eta ermitarako. Oso fededuna izanik, apaiz sartzeko grina izan zuen berehala, baina "familia onekoa" ez izanagatik, muzin egin behar izan zion, tristuraz, bere nahiari. Hala, hamabost urte betetzearekin batera, Ordiziako Irastorza ebanisterian hasi zen lanean soldaduskara joan zen arte. Bueltan, biltegia ireki zuen bere anaietako batekin, eta bertan aritu zen hamabost urtez lanean. 31 urterekin ezkondu zen Miren Auzmendi Garmendia ataundarrarekin eta elkarrekin ireki zuten Eguzki taberna Urdaneta kalean. Jubilatu bitarteko lanak barraren atzean egin zituen. Ordiziako Odol Emaileen Elkartea sortu zuen 1966an, Patxi Gabilondo Lasa eta Iñaki Imaz Mazkiaranekin batera. Ordiziako Gazta Kofradiako kide ere bada haren sorreratik.

Maria Iturrioz (1920)

Maria Iturrioz Altzagan jaio zen abuztuaren 28an, zein urtetan izan zen oso ziur ez dakien arren. Etxean ogirik ez zuten eta taloa jaten zuten gozaltzeko, bazkaltzeko, meriendatzeko eta afaltzeko. Eskolan oso gutxi ibili zen eta ikasi zuen gaztelania apurra zigortuta ikasi zuen. Behiak jeisteko lehenengo makina berak ipini zuen Altzagan.

Maritxu Zubeldia (1933)

Maritxu Altzagan jaio zen 1933an. Baserritik kalera, Ordizira, ezkondu zen eta ordutik bertan bizi da. Dantza ikaragarri gustatzen zitzaion eta oraindik ere asko gustatzen zaio.

Antonio Zubeldia Olano (1930)



Altzagako Abali bailarako Abali Goena baserrian jaioa 1930ean. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Gaintzako Gorostizukoa. 5 anai-arreba ziren etxean eta umetatik baserritik bizi izan da. Eskolan ez zuen zorte handirik izan: 6 urterekin Altzagan hasi eta maisuak bota egin omen zuen euria egiten zuenean bakarrik joaten zelako eskolara; handik Ordiziara bidali zuen aitag eta han ere maisua gaixotu zenez, eskola gabe gelditu zen. Gaztea zela, ama gaixotu zitzaion eta baserriko lanetara bueltatu beharra suertatu zitzaion. Altzagako lehenengo gari-jotzeko makina Antoniok eta beste etxebizitzakoak izan zuten. Altzagako bidea egiten eta basoan lanetan aritua da besteak beste. Soldadutza Donostian egin zuen eta Francori guardiak egiten jarduna da. 32 urterekin ezkondu eta 5 seme-alaba izan zituen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Garai batean Altzagan jendea oso umore onez ibiltzen zen

- **Hizlaria(k):** Zubeldia Olano, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ALG-002/022
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:04:22. **Bukatu:** 01:05:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Garai batean Altzaga baserriz eta ganaduz beterik zegoen. Gaur berriz ez. Segara joaten zirenean ingurukoekin harremanak izaten zituzten, umore onez ibiltzen ziren. Jaia iristen zenean dantzara joateko gogoz ibiltzen ziren; orain berriz soinua jo eta denak begira geratzen dira.

Transkripzioa

- Antonio, nolakoa zan Altzaa ordun? Altzaga.
- Altzaga zan ordun dana baserritarrez betetakoa, ta dana ganaoz betetakoa, ta oain iñor ez dezu Altzagan lanen ikusten. Hemen [nik goitik behera]... Altzaga baiño gehio giñen Gaintzea, zeatik hemen eguteratik

danak Gaintzea [daukeu guk] ta handik honea ta Gaintze. Basoa juten giñen segaa, eta etxeonak aldameneko bason, beste Gaintzeko hoik beste aldetik ixkiñan danak bason... dana ia hizketa hotsa aitzen zala aitzen giñen. Ta gero atsaldean danak [...] ta gurdi kargan ta ez dakit zer ta. Beste ambiente bat zan, beste ambiente bat! Ta, gaiñea, gurdi gaiñen zijona beti berso kantatuz, zea, juten giñen, txistu jo ta bertso kantatuz juten giñen.

- [...]

- Umorez ibiltzen giñen beti

- Nahiz ta lanea jun.

- Bai, nahiz ta lanea jun. Ta oain, oain ez dao holako umoreik hemen. Jaie etorri ta amorrauta dantza itea. Geldittu eziñik itten genun dantza guk. Atsaldeko laueta hasi ta fuego dantzan! Ta oain, berriz, plaza jun eta eukiko dezu trikitixa jotzen ta iñor ez dantzan hasten. Danak jarri hola ta beida. Ordun... bua! Ordun dantza [iten zan].

1.2. Dantzara igande arratsaldeetan

- **Hizlaria(k):** Zubeldia Olano, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ALG-002/023
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:05:41. **Bukatu:** 01:07:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Larraitzera asko joaten ziren. Olarraingo soinu-jotzailea igande gehienetan bertan izaten zen. Legorretara ere askotan joaten ziren dantzara. Oinez joaten ziren kuadrillan.

Transkripzioa

- Zuek nun maitzen ziñeten? Altzagan hemen bertan, Gaintzea, Larraitza...?

- Larraitza, horrea asko juten giñen Larraitza gu. Urdun hor Baliarraingoa Felix-eo bazan soiñu jotzaille ona —izatez Gaintzakoa zan, Liernia zeon ezkondata— eta Larraizko haitz baten punta iyotzen zan ta han jotzen zon.

- Jaiero izaten zan?

- Gehienen bai. Eta geroxon zea're bai, hurruna hasi zan... Legorretako Jainkone ez dakit badakizun nun daon?

- Ez.

- Legorretako karretara ateata, uain sagardotei bat dao, Aulia eo, hua baiño lehentxeo hantxe. Aurrekalden terraza bat zon ta [hauntza]. Hemendio taka-taka-ta, ta hauntza. Han dantza in ta handik Baliarraindik bueltan gauen hortik mendiz etxea etortzen giñan. Askotan!

- Ilusioa.

- Ilusioa? Bueno! Ez oain bezela, [inbirik ez zan]... [Urbia] jun ber deu ta danak kotxian. Oain oiñez ez daki jendek oaingok ta.

- Zuek kuadrillan juten ziñeten?

- Kuadrillan ibiltzen giñen.

- Lagun asko ziñeten hemendik?

- Bai, kirotxokokin asko eoten giñen ta... badakizu, kintakok'e bost bagiñen. Eta gero gaztetxio-zahartxio ez zan ordun oain bezela... danak alkarrekin

ibili, hamabost, dozena bat mutil igual. Ta gero, batenbat andregaiakin zalako, harrek alde iten zon, baiño beste...

2. Euskara

2.1. Lagunekin beti hika hitz egin izan du

- **Hizlaria(k)**: Zubeldia Olano, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ALG-002/024
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 01:07:04. **Bukatu**: 01:08:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena**: Lagunekin beti hika hitz egin du. Etxean berriz, gurasoei zuka eta hika senideen artean. Berorika ez du hitz egin.

Transkripzioa

- Antonio, lagunekin nola hitz eitten zenun, hika ala zuka?
- Hika beti.
- Hika.
- Bai, beti hika.
- Bai mutil, bai neska?
- Neskai ez.
- Neskai zuka?
- Neskai zuka generalen, baiño neskak'e hola bertan konfiantza pixkat [balin] bazan, hika igual, e? Bai.
- Ta neskak zuei?
- Hika, bai, hika, bai.
- Eta etxen?
- Etxen'e neskai hika. Aitta ta amakin ez, zuka, baiño gaiñantzen alkarrekin hika. Oiñ'e hala itten deu.
- Anai-arreba danak hika.
- Bai, bai hika; hika, beti.
- Berorikaik ibili zenun?
- Ez.
- Apaizakin o baten batekin?
- [...] beori ta hoi...
- Ez?
- Apaizai beorri o hola, baiño apaizai kontu gutxi esaten [giñon] guk.
- Medikui?
- Medikui... Ez giñan askotan behartuko medikuna gu ta. Oain ya sarri joten gea, baiño ordun... ta...

2.2. Euskara politena Tolosaldeakoa da

- **Hizlaria(k)**: Zubeldia Olano, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ALG-002/025
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 01:08:01. **Bukatu**: 01:09:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Euskara » Euskararekiko sentimendua

Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

- **Laburpena:** Euskara politena Tolosaldeakoa dela iruditzen zaio, garbiena delako. Gazteak euskaraz entzuteak poza ematen dio baina gutxi entzuten dela iruditzen zaio.

Transkripzioa

- Eta euskera zutzako nungua da polittena? Nungo euskera gustatzen zaizu zuri?

- Euskera polittena hemen nik Tolosaldekoa izango dela uste det /ustet/.

- Zeatik? Jendek hala esaten dulako o [...]?

- Ez, ez, garbitasunegatio, garbitasunegati. Zeatik hemen juten zea Ataunen... oiñ Ataunen asko hitzein da oaingo postura, e, baiño lehen garai baten, [etxekotan'e "toixa" ta "etxu"] ta ez dakit zer ta. Ta beste hemen juten zea zea aldea, Oñati aldea ta, hoi, txantxiku zea hoik, ta hoiei euskeraz ai diala're ez zaie entenditzen. Ta juten bazea Bizkaia, berriz... e? Euskeraz baiño erderaz gehio hitz eitten due /hitzeitteue/ euskeraz ai diela: "tenporak esplendiduak eitten jok e trigua maduratzeko" ta... Oseake, euskerea... hemen... Beno, Tolosatik honea gutxi kanbiauko da, e.

- Eta zuk antzematen dezu gaurko gazteta, zuengadikan gaurko gazteta, euskera diferentzie? Entenditzen dezue gaurko gazten euskera?

- Bai, entendittu hoi bai. Ta nei poza ematen dit askotan, hola, gazteakin, nexka gaxtek eta mutil gaztek-eta ikusi eta kalen euskeraz hitz ein ezkeru, baiño oso gutxi aitzen da. Oso gutxi aitzen da. Baiño poza eman bai, e! Ta itten duenen dotorezikin, gaiñea...! zeatik gure mutiko txikik lehengon in zittun zazpi urte, ta harrek itten don euskera politte...! ta garbi garbi hitz eitten do, gaiñea, ta hizkera dotorea da hortan.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Abali baserriaren historia (ALG-002/001)

Antonio Zubeldia Olano 1930eko azaroaren 15ean Abali baserrian jaio zen, Abali bailaran. Hainbat Abali daude inguruan. Aita bertakoa zuen eta ama berriz Leitzakoa. Garai batean hiru familia ziren etxe honetan. Gaur egun bi familia bizi dira. Orain dagoen etxean lehen zegoena bota ondoren eraiki zuten, duela 100 urte baino gehiago. Auzoan ez zeuden ume asko.

2. Altzagako inguruak (ALG-002/002)

Abali baserria Altzagakoa da. Garai batean bost baserri ziren bertan eta Altzagaraten berriz zazpi. Altzagaratera festetan joaten ziren. Gaintza eta Larraitzerako joera gehiago zuten.

3. Garia lantzeko makinarekin komeriak (ALG-002/003)

Baserrian behiak eta idiak zituzten. Garia ere egiten zuten. Garia lantzeko makina erosteko hainbat komeria izan zituzten.

4. Gari-jotzea (ALG-002/004)

Garai batean, garia lantzeko makina Baliarrainetik ekartzen zuten. Makina hura ordaindu egin behar izaten zuten, hamar duro. Gari-jotzeko lanak nolakoak izaten ziren kontatzen du.

5. Garia eta artoa egiten zituzten (ALG-002/005)

Gari eta arto asko egiten zuten. Etxean ogi faltarik ez zuten izaten. Goiz garia egiten zuten. Inguruko en lurretan beraien makina erabiltzen zuten.

6. Errotara gauez, estraperloan (ALG-002/006)

Errota Araman eta Zaldibian zeuden. Gauez joaten ziren, estraperloan. Asto gainean joaten ziren. Ez zituzten sekulan harrapatu.

7. Bizilagunekin gauza asko konpartitzen zituzten (ALG-002/007)

Ogia etxean egiten zuten, bi etheen artean konpartitzen zuten labean. Hainbat gauza zituzten elkarrekin ondoko bizilagunekin. Baratzea etxe atarian zeukaten baina bakoitzak berea.

8. Garoa eta orbela biltzen (ALG-002/008)

Baratzea ez zen oso handia. Garoa ekartzera Gaintzara joaten ziren. Beranduago aitak terreno bat erosi zuen inguruan. Garoa segaz biltzen zuten, udazkenean. Garoa nola biltzen zuten, suatzak eginez. Orbela ere gordetzen zuten. Garoa azpiak egiteko erabiltzen zuten.

9. Baserrian zituzten abereak (ALG-002/009)

Ganadu gutxi zeukaten belar hutsa ematen zitzaien eta. Esnetako behiak izaten zituzten. Esnea esnezaleari saltzen zioten. Basoan dozena erdi bat ardi izaten zituzten. Ukuilua etxean bertan zeukaten.

10. Eskolatik bidali zuten egun euritsuetan bakarrik joateagatik (ALG-002/010)

Eskolara sei urte zituela hasi zen. 11 urte bete ondoren maisuak eskolatik bidali egin zuen, euria ari zuenean bakarrik joaten zelako. Maisu ona zen baina oso gogorra. Valladolidekoa zen. Eskola herrian bertan zegoen, udaletxearen eraikuntzan.

11. Ordiziako eskolan hasi eta ama gaixotu zitzaion (ALG-002/011)

Ordiziako Santa Ana eskolan hasi eta aste gutxi barru ama gaixotu zitzaion eta eskola utzi behar izan zuen. Ordiziako medikua etxera ekarri zuten ama ikustera. Berrito ere eskolaratzen saiatu zen arren ezin izan zuen.

12. Altzagako eskolan erdaraz hitz egin behar zuten (ALG-002/012)

Altzagako eskolan erdaraz hitz egiten zuten. Euskaraz hitz egiteagatik zigortu egiten zituzten. Futbolearen ibiltzen ziren. Irakurtzen ikasi zuen baina ezer ulertu gabe.

13. Soldadu Donostian (ALG-002/013)

Oreretako ahaide baten laguntzari esker, soldadu bezala Afrikara joateaz libratu ahal izan zuen. Donostiara bidali zuten. Donostiatik Oriora joan ziren instrukzioa egitera. Lizartzako eta Orexako bi lagunekin tokatu zitzaion. Aragoiko batekin laguna egin zen eta erdaraz asko ikasi zuen.

14. Soldadutzako kontakizunak (ALG-002/014)

Kuartelean kabo izendatu zuten. Francori guardiak ere egin behar izan zizkion. Bulego lanak egiten jarri zuten dotore jantzita, hainbat enkargu egiten. Entxufatutako asko zituen inguruan.

15. Francori guardiak egiten soldadu garaian (ALG-002/015)

Soldadu garaian Francori guardiak egin behar izan zizkion. Garai hartan Franco ona zela iruditzen zitzaien. Guardia haiek nolakoak ziren kontatzen du.

16. Soldadutzako jornala eta zigorrak (ALG-002/016)

San Marcosen entrenamenduak egiten zituzten soldadutzan. Gauetz ere ibiltzen ziren. Jornala kobratzen zuten, 15 pezeta. Behin kalabozoan nola sartu zuten kontatzen du. Hamabost hilabete pasa zituen soldadu bezala.

17. Altzagako bideak egiten ibili zen (ALG-002/017)

Soldaduskatik itzuli zenean Altzagatik Altzagaraterako bidea egiten hasi zen lanean. Bide hura egiteko hainbat istilu izan ziren desjabetzak zirela eta. Metroko duroa ordaintzen ziela gogoan du. Baserri bakoitzak dirua jarri behar izan zuen.

18. Basolanean ibili zen garaia (ALG-002/019)

Basolanetan ere ibili zen, makina bat lekutan. Gaurkoarekin konparatuta orduko baso lana gogorra izaten zen, aizkora eta trontza besterik ez zituzten erabiltzen eta. Inguruko herrietako basoetara mendiz oinez iristen ziren. Gehienetan, haritzak ateratzen zituzten. Jornala 20 durokoa zen hasieran, eta 30 irabaztera ere iritsi ziren. Inguruan pago motza deiturikoa asko izaten zen, eta gaztaina ere bai. Haritzak, berriz, tarteka ateratzen ziren.

19. Gaztainak bildu eta Ordiziako azokan saldu (ALG-002/020)

Gaztainak bildu eta zakuka saltzen zituzten. Gaztainak eskuz nola biltzen zituzten kontatzen du. Gaztaina zakuk Ordiziako arkupe batzuetan uzten zituzten azoka eguna iritsi bitartean.

20. Sagarrekin etxean sagardoa egiten zuten (ALG-002/021)

Sagarrekin sagardoa egiten zuten etxeko dolarean. Ingurukoek ere erabiltzen zuten Antonioren etxeko dolarea, eta uzten zuten patsa behiei ematen zioten. Garai hartan, dena aprobetxatzen zen.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com